EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# EPE 2011: Maisu-Maistrak, Bigarren Hezkuntza, HEO eta Kontserbatorioak

## PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA / UNITATE DIDAKTIKOA ENTREGATZEA

### BERRIKUNTZA INPORTANTEAK

**ENTREGATZEKO EPEA**: 2011ko otsailaren 14tik 28ra bitartean, biak barne. (Azken egunetara arte ez itxarotea gomendatzen da)

**Agiriak FORMATU ELEKTRONIKO hauetakoren bat izan behar du:**

- Microsoft Office 2007 edo aurrekoa.
- Open Office 3.2 edo aurrekoa
- Fitxategiak Portable Document Formaten (PDF).

Internet-en helbide hauetan: http://irakasle.net edo http://hezkuntza.ejgv.euskadi.net **ON LINE ENTREGATU BEHAR DA --** EPE 2011 Irakasleen kidegoak web orrian.

### ON LINE ENTREGATZEKO GIDA

1- "Norberari egokitutako kontsultak eta PD/UDren entrega"-n sartu



2- eskabide zbk-rekin eta NANarekin identifikatu eta semaforo berdea sakatu




3- “Eskabide zbk-PD/UDren entrega“ atalean agertzen den hautagaiaren eskaera-zenbakian sakatu.



4- entregatu pantailaren argibideen arabera.




**PROZESUTIK AT GERATZEA**: Dagokion epean, Internet-en helbidean eta adierazitako formatu elektronikoetakoren batean entregatzen ez duena aukeratze-prozeduratik at geratuko da.

Agiri bat berean ere ez da hautagaiaren **INOLAKO IDENTIFIKAZIO-DATU PERTSONALIK** agertuko (izena, abizenak, NANa, telefonoa).
Aurreko aukeratze-prozesuetan ez bezala, honetan **EZ** da identifikazio-datuak izango dituen **inolako eranskinik/azalik erakutsi beharko.**

**KIDEGO BAT BAINO GEHIAGOTAN PARTE HARTU BADUZU,** EPEko eskaera bat baino gehiago izango duzu: Programazio didaktiko eta, kasua bada, unitate didaktiko bakoitza entregatzerakoan, identifikatu behar izango duzu eskaera bakoitzari dagokion zenbakiarekin, kontuan izanda dokumentazioa zein Kidego eta espezialitatekoa den.

**NORTZUEK ENTREGATU BEHARKO DUTE PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA** (txanda librea, ezinduei erreserbaturiko txanda eta talde bereko beste kidego batzuetara eta kidego horietako destino osagarrien mailetara sartzeko txanda, betiere azken kasu honetan jatorriko kidegoan titularra den espezialitate berera sartu nahi bada)

- Aukeratze-prozesuan onartutako lehiatzaileak.

- Aukeratze-prozesutik at utzitako lehiatzaileak, betiere at geratze horren kontra erreklamazioa jarri badute eta erreklamazio hori ebatzi gabe badago.

**NORTZUEK ENTREGATU BEHARKO DUTE UNITATE DIDAKTIKOA**
(txanda librea eta ezinduei erreserbaturiko txanda)

- B.2) ariketaren ordez Hezkuntza Administrazioak txosten bat emateko eskaera behin-behingoz onartu zaien lehiatzaileak, zerbitzuak ematen dituzten Autonomia Erkidegoa zein den alde batera utzita.

- Aukeratze-prozesutik at geratu ziren eta B.2) ariketaren ordez txostena eskatu zuten lehiatzaileak, betiere at geratze horren kontra erreklamazioa jarri badute eta erreklamazio hori ebatzi gabe badago.

- B.2) ariketaren ordez txostenaren aukera behin-behingoz ukatu zaien lehiatzaileak, betiere erabaki horren kontra erreklamazioa aurkeztu badute eta erreklamazio hori ebatzi gabe badago.

**INFORMAZIO GEHIAGO**: Kontsultatu EPE 2011 Irakasleen kidegoak web orriko "BERRIAK" atalean Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena, entregatzeko argibideak ematen dituena, eta gainontzeko informazioa.